

# “POESIA NON DAGO?”

Mikelazulo

SARRERA  
SARRERA

Poesia, niretzat, hitzaren bidez edertasuna sortzea da. Edertasuna, berriz, kaosean harmonia jartzea da, materian espiritua, etsipenean adorea, ilunean argia, sufrimenduan leungarria, lurrean hitza. Horregatik, edertasuna, beti, historikoa da. Kaosak, sufrimenduak etabarrek berritzen eta forma berriak hartzen dituzten bezala, edertasunak ere forma berriak hartzen ditu etengabe. Sortzaile izateak, besteak beste, berrikuntza eta aniztasuna esan nahi du.

Eta hori dena, poesia (idatzi, irakurri, deklamatu...), entrenamendu bat da, bizitzarako entrenamendua. Poesia guretzat bizitzan txertatu nahi dugun zerbait da, gizakien arteko hitzezko harremanetan sortzen den edertasuna: etxean, lagunen artean, lanean, politikan, bidaietan... Poesia egiten eta irakurtzen dugu, bizitza poetiko (eder-sortzaile) bat egiten ikasteko.

Aste honekin, bada, ez dugu espektakulo bat eskeini nahi. Ez dugu lagunengatik kanpo gelditzen den zerbait erakutsi. Gure lagunengatik bizitzaren baitan eragin nahi dugu, zilegi den eragingarri bakarrarekin: sormenaren prozesua eta sakontasuna agerian jarritz. Mikelazuloko poesiaren asteak izenburutzat “Poesia non dago” eraman dezake, guk geuk antolatzaileok badakigulako non dago: gutako bakoitzaren bizitzan.

Aste honetan gure aurrean jarriko ditugu Bitoriano Gandiaga, euskaldun sumeen sufrimendu eta pozaren poeta; Sarrionandia, euskal izan-nahi konstzientearen zalantza, borondate, adorea poeta; Mikel Lasa eta Carlos Aurtenetxe, hizkuntzen arteko osagarritasunaren poetak; Tere Irastorzak, Erkudenek eta Amaiak, “Garena naizela” emanaldiaren bidez izateko sortu eta sortzeko izan-nahiara eramaten gaituzte. Zeharka taldea, sormenaren gaztetasunaren ispilua.

Aste honekin, bada, ez dugu espektakulo bat eskeini nahi. Gure lagunengatik bizitzaren baitan eragin nahi dugu, zilegi den eragingarri bakarrarekin: sormenaren prozesua eta sakontasuna agerian jarritz. Poesia non dago? Agian, zure zeure bizitza poema bat izan daiteke!

## POESIA NON DAGO? ESKER ONEZ.

Mikelazulo elkarteko poesiaren astearen bidaia bukatu da. Bertan egunero egon den batek honela laburbildu zuen astea: “Galaktiko, kosmiko, amazonikoa eta akonjonantea izan da”. Eta oso laburpen zuzena da. Izan ere...

Eskerrak eman nahi diegu lagunengatik diguten guztiei: gure herriko hainbat taberna eta dendei bere espazioaren zatia gure kartela jartzeko utzi digutelako; herriko kaleei oso ondo onartu dutelako paretetan zintzilikatu ditugun kartelak; udaletxeari diru zerbait eman digulako; tramo dendari kartelak eta triptikoak txukun atera dituztelako; lau haizetara aldizkariari, oarso telebistari, zintzilik irratitari,

maiatzaren 15-tik 19-ra  
mikelazulon arratsaldeko 7:30-tan

# Poesia non dago?

NIKEL/ZULO beheko kalea 4, 20100 ORREETA 943517002



"Poeta naizen ezkerro  
ez dut  
zerurik espero"

Aresti



errenteria iriatiari, herri-irradi, euskadi-irradi, egunkaria, gara eta diario vascori gure emanaldien eta pentsamenduen berri eman dutelako; bertatik-bertara saioari anuntziatu, etorri eta grabatu eta parte bat emititu dutelako. Antolakuntzaren arduradunak, mikelazulo, kartelaren egileak... denok eskeronez agurtzen zaituztegu.

Izan ere, bost egunetako bidai honetan, bost geldialdi izan ditugu eta bostetan ezustean harrapatu gaitu poesiak. Argi itzalita eta kandelak piztuta Bitoriano Gandiagaren ahotsa (grabazio ineditoa) entzunez, Lurra Ama emankor eta maitagarria, Eguzki-Sua amaita eta aitama, Ura-Euria ernalkorra eta Haze-Hatsa sortzailea agurtuz eta gurtuz eman genion hasiera poesia bidaiari.

Bigarren geltokian Sarrionandia aurkitu genuen. Sarrirekin bertsoak gozatu genuen, ipuina dastatu... eta, bukaeran, magia: galdetu zen “Zer da zuretzat Sarri?”. Eta han ginenok inoren eritziaren zain egon gabe, gure geure barreneko erantzuna eman genuen. Harrigarria zer den Sarri...! Eguzkia, argia, amua, babes, itxaropena, adorea, hitzez diona ekintzen egina...

Hirugarrenean Mikel Lasak, Carlos Aurtenetxek eta Felipe Juaristik hegalaldi zabalean Rimbaud poeta goiztiar, dizdiratsua, ezustekoa,

sakona, neka-ezinezko ibiltaria, ekaitztsua, erabatekoa, misterioaren apaiza sakrifikatua ezagutu genuen. Eta Oteiza “akontezidoa”-aren harridura eta harriduriaren barna eramán gintuzten. “Ikaitz” poemarekin amaitu zen solasa.

Laugarren geltokian biolina, eskusoinua, kanta, elkarrizketa eta ahotsa loturik “Garena naitzela” emanaldia eskeini ziguten Tere Irastorzak, Erkuden Floresek eta Amaia Olanok. Bizitzaren muinaren muinaren muineko altzoan, ama-haurraren arteko harremanaren benekotasunean kulunkatu ginen.

Atsedean unea iritxi zen, azken geltokia, Zeharka poeta talde gaztea. Informal, heretiko, sakon eta erotikoaren eguna eta farra. Goizeko bostak arte festa. Atril hutsa, neska-mutil poeta berri-berrien lehen deklamazioa, lotsa eta endredua; ohi-tuago batzuren lotsagabetasun fresko eta alaia, ezusteko imaginazioaren ibilerak, xamurtasun xamurra, amets orohartzaileak, bakardadearen ziztada ... eta farra, gerure buruari, poesiari, begirune osoz eta farrezka.

Esker mila eta on egin.

Joseba eta Urtzi, antolatzaileak

